

+

**BEGIZ**  
Ismael Manterola

## Demagogia paternalista

**M**acronen beste efektu kolpea. Frantziako presidentearen arabera, Parisko Quai Branly museoan gordetzen diren 46.000 artelan gutxi gorabehera jatorrizko tokietara bueltatu behar dira. Saharaz hegoaldeko Afrikako lanak omen

dira bueltan bidali behar dituztenak, beste guztiak ahaztuta.

Ez da erraza Macronen populismoaren eta demagogiaren asmoa sumatzea. Ez dakigu zer lortu nahi duen komunikabideen aurrean bota duen elkarrizketa-ekin. Aljerian egindako deklarazioak aurrerapentzat hartu geni-

tuen, eta Frantziak egindako saraski kolonialen onarpenaren hasiera izango zela genuen. Baina, egunak eta hilabeteak pasatu ondoren, ez dago itxaropen-erako tarte handirik. Ez dut uste Frantziak jarrera kolonialak alde batera uzteko asmorik duenik, nahiz eta artelanak bueltatuko dituela esan. Gainera, esatetik egitera badago tartea, eta badirudi esateko egiteko baino asmo handiagoa duela Frantziako presidentek.

Berehala irten dira ondarearen zaintzaile eta legelariak esanez ez dela erraza Frantziatik hainbeste artelan ateratzea; Quai Branly museoan zuzendariak ere Macronen hitzei nabardurak gehitu dizkie, zuzenean gaitzetsi ez baiditu behintzat.

Arazo horiei, beste bat gehitu behar genieke. Nori itzuli behar

dizkiote 200 urteko lapurretan pilatutako objektuak? Gaur egungo Afrikako egitura metropolien logikari lotuta dago, eta horregatik, estatu askoren mugak garai bateko tribuen gainetik eratu zituzten erregela eta karta-boia maparen gainean jarrita. Beraz, Afrikako gaur eguneko estatuak al dira hainbat eta hainbat gizatalderi lapurtutako objektu jabe? Ez dakit benetako jabeei galdetu dieten artelanen buelta nola egin behar den eta non nahi duten biltzea. Afrika desegituratu eta sakeatu ondoren, ez da erraza onaren plantak egitea eta lapurtutako altzariak bueltatzeko asmoa agertzea, herrialdeak xurgatzen jarraitzen dugun bitartean. Benetan gustatuko litzaiguke Frantziak kolonial izandako lurraldeak esplotatzeari uztea eta bidezko merka-

taritzan murgiltzea, baina ez dut uste Macronen babesle ekonomikoek horrelako urratsak emateko baimenik emango diotenik. Horren ordeztu, deklarazio publikoen makillajea eskaintzen die Saharaz hegoaldeko Afrikako gobernu txotxongiloiei.

Gustura hartuko dituzte Frantziaren edo Frantziaren botere ekonomikoaren menpe dauden gobernuak Macronen erregalua, berehala azalduko dira museoak eraikitzekeko proiektuak, Parisko arkitektoen proiektuen arabera eta Frantziatik eramandako zementuarekin. Baina guretzat artelan diren objektu horien jabeek museoan sartuta nahi al dituzte? Ba al dute oraindik beraientzat esanahi erritualik edo erabilgarririk? Zaldi Eroaren gizon zuriaren tokia betetzen duen Aita Macronek erabakiko du hori ere.

## Beste irakurketak

Urtzi Ibarguen

**A**lcobendasen (Madril, Espainia) aurkeztu ondoren, Alejandro Castañeda arte komisarioaren eskutik, Donostiara datorkigu arte afrikarra eta Mendebaldeko arte garaikidearen arteko lotura aurkezten duen *Idea zeinu batean. Sanchez-Ubiria bilduma*. Margarita Sanchezek eta Sebastian Ubiriak (azken hori donostiarra da) sortutako bildumaren 170 lan aurkezten zaizkigu han: arte afrikarraren eremuan kokatzen diren 93 artelan eta arte garaikidearen eremuko 77 artelan. Alcobendasen aurkeztu zen erakusketaren bertsio eraberritua eta hedatua da, bildumako euskal artistak ere batu baitira, tartean Ifñaki Gracenea, Jose Ramon Amondarain eta Cristina Iglesias.

Bildumagile bikote horrek 80ko hamarkadan hasi zuen arte afrikarraren bilduma, eta arte garaikidearen bilduma, berriz, 90eko hamarkadaren erdialdera. Biak batuz, 500 lan baino gehiago biltzen dituen bilduma bat sortu dute. Erakusketaren izenburua Levi-Strauss antropologoak idatzitako *La pensée sauvage* liburuan sortutako gogoeta batetik dator. Egileak artearen historiako

+

**KRIKITA**  
**Artea**  
**'Idea zeinu batean. Sanchez-Ubiria bilduma'**

**Non:** Donostiako Kubo-Kutxa aretoan.  
**Noiz arte:** urtarrilaren 20ra arte.

bi alor horiek erlazionatzen ditu, bildumaren bi multzoen arteko ezinbesteko lotura bat sortuz, eta, era berean, kolonialismo prozesuen inguruko irakurketa kritiko bat planteatuz.

Hala, jatorri, kultura eta garai ezberdinetako artelanekin gozatzeko aukera ematen du erakusketak, beraien arteko lotura eta harreman ezberdinak aurkeztuz edo iradokiz: gaia, formak, materialak eta abar. Sei ataletan banatzen den ibilbide bat proposatzen du; alde batetik, Afrikako hainbat herrialdeko kulturek sortutako artelanak daude (besteak beste, Gabon, Ghana, Mali, Nigeria, Boli Kosta, Tanzania, Hego-Afrika, Burkina Faso eta Beninokoak), eta arte garaikidearen eremuan kokatzen den artista multzo zabal baten lanekin guru-



**Sanchez-Ubiria bildumako *Idea zeinu batean* erakusketa.** JON URBE / FOKU

tzatzen dira horiek (horien artean aipagarrienak Bruce Nauman, Angela de La Cruz, Gordon Matta-Clark, Antoni Tapes, Wolf Vostel, Richard Deacon eta Robert Mapplethorpe dira).

Oinarri aberats horrekin, ibilbideko lehen bi ataletan erakusketak orokorrean planteatzen duen gogoeta eraikitzen da: Afrikako eta Ozeaniako kulturek Mendebaldeko artearen tradizio errenazentistaren eraldaketan izan zuten eragina. Kontakizunaren barruan, hemen barneratzen da *bricoleur* hitza. Termino hori Levi-Straussen ikerketekin harremanetan da, eta artista aurretiko planik gabe momentuan eskura duenarekin eta ohiko bideak erabili gabe sortzen duen pertsonarekin alderatzen du. Mugimendu hori XX. mende ha-

sieran hasi zen, abangoardietako artistek kultura horien eragina jaso zutenean, pentsamendu zientifikoari aurre eginez eta pentsamendu basatirantz hurbilduz.

Hirugarren atalak xamanismoaren edo magiaren ideiarekin du lotura, artista modernoek arte primitibotik jaso zituzten ideia eta kontzeptu ezberdinak aldarrikatuz. Sormen prozesuak eta prozesu erritualak parekatzen dira espazio horretan. Laugarren espazioak, ezberdina izan arren, aurrekoarekin lotura handia du, fetitxean oinarritzen baita. Areto horretan, Bruce Naumanen *Setting a good corner* artelana ikus daiteke. Bideo lan horren grabaketak irauten duen 55 minutuetan, Nauman bera ikusten da hesi bat eraikitzen. Fetitxearekin bai-

no gehiago, agian, errituarekin harremanetan da ekintza. Ibilbideko bosgarren atalak aldaketa bat dakar, eta hark egiten du kolonialismoarekiko kritikarik zuzenena. Han aurkezten diren pieza ezberdinek bitxikerien kabinete bat eraikitzen dute, menderatutakoaren eta menperatzaileen arteko harremanaren irakurketa argi bat zabalduz. Aurkitzailea eta aurkitutakoa, artea ala bitxikeria, agian soilik beste erakusketak bat antolatzeke oinarri egozia izango litzateke. Ibilbidea ixten duen azken atalak, seigarrenak, gorputza du ardatz nagusi, feminitatearen eta maskulinitatearen arteko jokoak.

Kontakizunaren barruan, esan bezala, bada kolonialismoaren inguruko irakurketa paralelo bat, eta irakurketa horri jarraituz, beste gogoeta batzuk pitz daitezke, kasu honetan arte garaikideari buruzkoak. Kolonizatzeko mugimendu horretan, afrikarrak konturatu ziren euren artelanek kanpokoentzat balioa zutela. Hori dela eta, artelanak arrazoi ekonomiko soilengatik eraikitzen hasi zirenean, objektu horiek oinarrian zuten zentzua gutxituz galdu zuten.

Gertaera hori, ekonomiak baldintzatua (objektuaren balio materiala, ez sinbolikoa), analogia aproposa izan daiteke gaur eguneko artearen munduaren irakurketa bat egiteko. Zeren eta zein da gaur egungo arte sorkuntzaren arrazoia? Eta zer eragin daukate gizarte kapitalistak eta merkatuak orokorrean sormen prozesuetan eta horiei eusten dieten sareetan?